

Handituz

Herria ezagutzen

3



ARGITARATZAILEA: Errenteriako Udala. Euskara Zerbitzua

EGILEA: Hik Hasi Euskal Heziketarako Aldizkaria (Arantxa Urbe)

MAKETAZIOA: Antza komunikazio grafikoa

ILUSTRAZIOAK: Juan Luis Landa

ARGAZKIAK: Errenteriako Udal Artxiboa, Oarso, Udal Txistulari Taldea, Ereintza Dantza Taldea, Iraultza Dantza Taldea, Ikor Kotx, hibaia gorria, Luis Elberdin eta Hik Hasi

L.G: SS-989-2010

Inprimatzailea: Antza komunikazio grafikoa

OHARRA: 6. eta 16. orrialdeko ilustrazioak Jon Gracia Arregik eginak dira

Gainerako irudiak: H. Wilkinson, Antonio Got Intxausti, Didier Petit de Meurville, Leon Laurent eta Eduardo Legarda Haranburu

Nire auzoa da.



Horrelakoa da nire auzoa:

.....

.....

.....

.....

.....



Marraztu zure auzoan gustuko duzun txokoa.



Aipatu ezagutzen dituzun gainerako auzoak.

.....

.....

.....

1476: Hondarribia setiatu ondoren frantsek su eman zioten gure herriari: 15 herri-tar hil zituzten.

1512: Frantziako gudarosteek herria suntsitu eta izugarrizko lapurretak egin zituzten. Hiru etxe besterik ez ziren geratu zutik.


1638: Frantsez armadak sutea eragin zuen: 300 etxe baino gehiago erre zituzten. Herria estrategikoki hobeto babestutako leku batean erakitzea erabaki zuten.



Gaztelako koroaren eta Frantziako ondorioz hainbat eraso jasan zituen

Gaztelako erregeak baimena eman eta hilabete eta erdira trazatu zituzten kaleak eta eliza. Inguruko zuhaitzak ere moztu zituzten.

1719an eta 1794an beste bi eraso izan zituzten. Basanoagako proiektua berriro aztertu zen arren ez zen egin: udalak dirurik ez zuelako eta donostiarrek beldurra zutelako...



erregeen arteko liskar ugarien herriak.

Zeren beldur ote ziren donostiarrak?

.....

Zein abantaila ikusten dizkiozu kokapen berriari?

.....

Biztanleak ugaritzen ari ziren eta jada ez ziren kabitzen harresien barruan.

Herria handitu beharra zegoen eta garai hartan beste herri batzuetan egin zen bezala, harresietatik kanpo zabaltzea erabaki zuten.

Baina norantz?




Hainbat proposamen zituzten herritarrek. Eztabaida gogorak izan omen ziren herria alde batera zein bestera zabaldu nahi zutenen artean.

Azkenean, Madalenako errebal aldera eta Santa Klara aldera zabaldu zuten.

Horra zenbat biztanle zeuden urteko.

Osatu alboko taula datuekin.

Urtea	Biztanleak	Urtea	Biztanleak	Urtea	Biztanleak
1768	1.294	1930	8.973	1990	42.441
1787	1.381	1940	10.106	1991	42.590
1825	1.543	1950	12.784	1992	41.666
1829	1.620	1951	12.846	1993	41.625
1842	1.651	1952	12.973	1994	41.418
1857	1.543	1957	16.147	1995	41.033
1860	2.800	1960	18.642	1996	39.203
1871	3.223	1970	34.610	1997	39.579
1900	4.091	1975	46.360	1998	39.686
1910	5.527	1981	45.789	1999	39.558
1920	6.956	1986	43.676	2000	39.200




XX. mendearen hasieran lantegiak ugaritzen hasi ziren herrian. Urte gutxitan asko hazi zen biztanle kopurua eta haientzat guztientzat etxebizitzak eraiki behar ziren.

Hala ere, bortitzagoa izan zen XX. mendeko 60ko eta 70eko hamarkadetan izandako etor-kin uholdea.

Herriak aldapan gora hazi behar izan zuen, zementuzko dorre tzarrak eraiki zituzten nonahi. Horrela sortu ziren Alaberga, Itzieta, Olibet, Pontika, Agustinak, Galtzaraborda, Beraun eta Sorginzulo.

Eta zer gertatzen ari da azken urteetan?

2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009
38.580	38.301	38.134	37.872	37.884	38.416	38.763	38.921	39.145



Oraingo Errenderi

Orain berrogei urte

gure

kasik esan liteke

etzala

urtetikan urtera

handitzen da

ordutikan honera

Parisa

Errenderi dirudi ageri ari



Ipiniko al zenuke oin
bakoitza bere lekuan?



Zergatik uste duzu...

1

Herriak Paris zirudiela?

.....

.....

2

Pellok ez duela inor ezagutzen?

.....

.....

3

Bertsolariak ez duela lehengo umorerik sentitzen?

.....

.....

Orain berrogei urte

denen lagun

gaur berriz kasik ez det

iñor

askotan egoten naiz

gauza hori:




orduko umorerik

ez det

sentitutzen ezagutzen nintzen pentsatzen

Pello Zabaleta Lekuonak jarriak 1946an

Doinua: Jaio al da ro? | Hamar urteko nintzan oteketan hasi



KAPUTXINOAK

ALABERGA

GALTZARABORDA

BERAUN

PONTI

NOR DA NONGOA?

- Gure auzoa aldapatsua da.
- Ez da ibaia pasatzen.
- Komentu bat dago.

- Gorena dagoen auzoa da.
- Futbol-zelaia eta frontoia ditu.
- Autopista pasatzen da.

- Ibaiko ahateen etxea dago.
- Gasolindegi zaharra dago.
- Ibai ondoan dago.

- Auzoa txikia da.
- Ibaia igarotzen da.
- Hiltegi zaharra bertan dago kokatuta.

- Letrak dira kaleen izenak.
- Trenbidearen beste aldean dago.
- Jende gutxiena bizi den auzoa da.

- Etxe altuak ditu.
- Tren geltokia du.
- Gailera fabrika zegoen haren lekuan.

- Oiarzungo mugan dago.
- Osasunetxea dago.
- Touring-eko futbol-zelaia bertan zegoen.

- Nekazal auzoa da.
- Nabigatzaile ospetsu baten izen bera du.
- Hainbat ikastetxe daude bertan.

- Ubideak zeharkatzen du.
- Errota bat dago.
- Ibaiaren eta trenbidearen artean dago.



Auzoak kaleka antolatuta daude.

Gehienetan auzo bakoitzak gai baten gaineko izenak ditu.


Zein gai dute eta zein auzokoak dira kale multzo hauek?

Jaizkibel
Murumendi
Ernio
Mandoegi
Aitzgorri

Astigarraga
Oiartzun
Irun
Hondarribia

Zamalbide
Zubiaurre
Uranzu
Kristobal Gamon

Auzoak ez du beti gaur egun duen itxura izan, aldatuz doa...



Zer ote zegoen hemen auzoa eraiki aurretik? Ikertu eta kontatu!
Elkarriketatu auzoari buruz dakien lagun bat.

.....

.....

.....

.....



Auzoan gertatu zen.



AUZOKO KALEAK

..... izenak

.....

.....

.....

Proposatu berriak:

.....


.....

.....

INKESTA

Gustura bizi al da jendea auzoan?

BAI



EZ



Idatzi auzoan gustuko dituzun lekuak.



Auzotarren iritzia oso garrantzitsua da. Haien proposamenek asko lagundu dute auzoetako bizi kalitatea hobetzen.

Auzoa hobetzeko nire proposamenak:

1

.....

2

.....

3

.....



**B**

KIROL INSTALAKUNTZAK
eta GOTORLEKUAK

Garai batean baserriek garrantzi handia izan zuten. Gaur egun baserri haietako asko eraitsiak izan dira. Zenbaiten lekuan bere izena daramaten auzoak eraiki dituzte.

Hona hemen hainbat baserriren izenak. * ikurra dutenak eraitsiak daude. Koloreztatu itzazu beltzez.

1. Abringoikoa
2. Aizpitarte
3. Alaberga
4. Aldura
5. Añabitarte
6. Argorri
7. Artamugarribekoa
8. Arramendi *
9. Azarañeta *
10. Basanoaga *
11. Belabaratx
12. Beraun *
13. Bordondo
14. Egiluzemendikoa
15. Esnabide
16. Fanderia *
17. Frantzesillagazarra
18. Gabirierrota *
19. Galtzaraborda *
20. Gamongoa
21. Gaztañedo
22. Gaztelutxo
23. Intsusaga
24. Iturralde *
25. Lanterneta
26. Lartzabal *
27. Listorreta
28. Loidi
29. Maleo
30. Markola *
31. Masti *
32. Morrontxo
33. Oztazuloeta
34. Lubeltza Zahar *
35. Pontika *
36. Salvatore *
37. Sorginzulo *
38. Susperregi
39. Txirrita
40. Versailles *
41. Senperelarre
42. Zamalbide
43. Zentolenea



Lantegiak industrialdeetan kokaturik daude. Herrian hiru industrialde ditugu.Izen hauen artean nahastu dira. Ea aurkitzen dituzun.


Barrengoloia
Egiburuberri
Nekatuegi

Aizpitarte
Azarañeta
Loidi/Masti

Txirrita/Maleo
Lantegienea
Perutxene/Sagasti

Lanterneta
Egiluzemendikoa
Sagardiburu/Zentolen

UDALA



Ba al dakizu nola dagoen eratua udala? Osatu eskema hitz egokia aukeratuz.

Juan Ignacio Gamongoa

1733ko uztailaren 29an jaio nintzen. Nire izen osoa, Juan Ignacio Gamongoa eta Etxeberria da, etxe oneko semea eta herriko famili ezagunekoa naiz.

Betidanik historia zalea izan naiz, eta oso gogokoa nuen idaztea. Herriko historia jaso nahi izan nuen, Oiartzun eta Donostiarekin izan genituen liskarrak, zuek noizbait ezagut zenitzaten. Etxeko liburutegian genituen idatzi zaharrak aztertu nituen horretarako.

Noticias Historicas de Renteria liburua idatzi nuen, baina hil ondoren argitaratu zuten, 1931n, udalak ez zuelako horretarako dirurik.

Liburu horretan gure herriaren eskubideak sutuki defendatu nituen.

Apaiza izan nintzen, parrokian. Idazteaz gain, abenturetarako astia ere izan nuen.

Hala, Konbentzioen gerra piztu zenean, 1793an, Frantsesak herrian sartu aurretik, udal artxiboko paper zaharrak eta parrokiako bitxiak hartu eta Santanderreko mendietara ihes egin nuen.

Han ezkutatu nituen eta, horri esker, salbatu ahal izan ziren.

Ordutik urte batzuk gehiago bizitu nintzen, 1814ko otsailaren 4 arte, hain zuzen.



D.^o Juan Ignacio Gamongoa



Juan Ignacio Gamongoak lan handia egin zuen herriaren alde.

Beste Gamon batzuk ere ezagunak izan ziren. Haien denen oroimenez hainbat leku izendatu dituzte. Ea zenbat ezagutzen dituzun!

.....

.....

.....

Betidanik musikarako eta kanturako zaletasun handia izan da herrian.

Aspalditik, urte luzeetan, parrokiako organoa izan zen musika-tresnarik garrantzitsuenak, haren itzalean sortu baitziren herriko koru, konposatzaile eta musikari gehienak.

Udalak txistulariak zituen herritarren gozamenerako. Oraindik ere, igandero, Udal Txistulari Taldeak herrian barrena itzulua egiten du.

XIX. mendetik aurrera, Udal Musika Banda sortu zen eta koruak osatuz joan ziren. Garaian garaiko musika talde eta kantari ospetsuak izan ditugu.

Maiatzean, Euskal Herrian sona handia duen MUSIKASTE ospatzen da, musikari eskainitako astea. Bestalde, Euskal Herriko musikarien lanak gordetzeko eta zabaltzeko artxiboa dago herrian: ERESBIL.

➡ Ezagutzen al duzue herriko musika talde, musikagile edo musikaririk?

.....

.....

➡ Zuetako batzuk koruren bateko kantariak zarete, akaso. Ba al dakizu zein koru dauden herrian?

.....

.....

➡ Ezagutzen al duzu gure herriaz hitz egiten duen kantu edo bertsoirik?

.....

.....





BERTSOLARITZA

Kantuan aritzen ziren beste batzuk bertsolariak ziren!

Bertsolari asko izan ditugu, baita ezagunak ere: *Patxi Bakallo, Xenpelar, Panderi, Frailia, Txirrita, Txintxua, Saiburua, Telleri-txiki, Taberna*, Salaberria, Zapiaindarrak, Urrutia, Zabaleta anaiak, *Xamarbide* eta Xabier Olaskoaga, Jon Ansa, Aitor Albistur, Arkaitz Oiartzabal eta Josu Oiartzabal, besteak beste.

Hainbat bertso-saio izaten dira urtean zehar, baita Xenpelar Bertso Paper Lehiaketa ere.

Badugu bertso eskola ere, Xenpelar Bertso Eskola.



Garai batean oso ohikoa zen antzerkia ikustea. Askotan, Zumardi txikian egiten ziren funtzioak. Reina Victoria eta On-Bide aretoetan ere emanaldi ugari egiten ziren.

Gaur egun Xenpelar Arte Plastikoetako Udal Lantegian bada Haurrentzako Antzerki Tailerra, eta herrian badira antzerki talde gutxi batzuk.



Ikusi al duzu antzerki lanik inoiz? Non?

Bildu taldeka eta prestatu antzerki lanen bat lagunei eskaintzeko.

DANTZA

Aspalditik ditugu dantzariak herrian. 1573an, 15 laguneko dantzari taldeak herriko eta elizako festetan parte hartu zuen.

Bi dantza talde garrantzitsu izan ditugu herrian: Ereintza eta Iraultza.



Ereintza 1958an sortu zen.



Iraultza 70eko hamarkadan sortu zen.

Udal Dantza Eskolan euskal dantzak eta dantza klasikoa ikasteaz gain, dantza garaikidea eta klakle ikas liteke.



Hala ere, badaude beste dantza mota batzuk lantzen dituzten taldeak. Ezagutzen al dituzu?



Oso dantzazaleak izan gara. Igande arratsaldetan dantzaldia izaten zen Zumardian. Mutilek dantza eskatzen zieten neskei eta handik sortu ziren bikote ugari urte askotan. Galdetu etxean!



Eta zuk, egiten al duzu kultura jardueraren bat: zein?

.....



Zure etxekoak kultur talderen bateko partaide al zarete?

.....



Joan al zara inoiz ikuskizunen batera? Edo kultura emankizunen bat ikusi ala entzun al duzu?

.....




Zein kultur jardueratan gustatuko litzaizuke parte hartzea?

.....



Eta zure gelako lagunek zer egiten dute? Galdetu eta bete taula.



Zein da gehienok egiten duzuen jarduera?

.....



Zer da gutxienok egiten duzuen?

.....



Lagunen batek egiten al du jardueraren bat herritik kanpo? Zein eta non.

..... :

..... :

..... :

Inauteriak

Entzun azalpenak eta ipini bakoitzari bere ezaugarriak



Azeri dantza

1.
2.
3.
4.

Diana

- | | |
|---------|---------|
| 1. | 3. |
| 2. | 4. |




Sardinaren ehorzketa

1.
2.
3.
4.

San Marko opila

San Marko egunean (apirilaren 25a), amandreek beren besoetakoei oparitzen diete opila. Hemen errezeta!



OSAGAIAK

3 arrautza, 100 gr. irin, 100 gr. azukre, koloratzailea, siropea (ura, azukrea, koloratzailea eta rona) eta glass azukrea.

Nola prestatu

Arrautzak eta azukrea nahastu, harrotu arte. Ondoren, irina gehitu eta oreka xuabe-xuabe nahastuko dugu.

Gurinez busti dugun moldera botako dugu egindako oreka. Labean sartu 20 minutuz 190-200 gradutan.

Opila labetik atera eta ura, marmelada, eta rona berotuz eginiko siropearekin bustiko dugu. Apaintzeko gozokiak, anisak, txokolatea ipini eta glass azukrea bota.

Ez ahaztu koloretako arrautzak, lumak eta txita. On egin!

EKAINAK

23

Sortu 06:00
Sartu 22:15Sortu 22:00
Sartu 04:30

San Joan sua

Gure arbasoek antzinatik ospatzen zuten udako solstizioa urteko gau motzenean.

Herriko plazan lizar enbor luze bat jartzen da. Goian dagoen ikurrina hartzen duenak saria omen du.

Gauetz, dantzariak haren inguruan dantzatzeko dute San Joaneko Soka Dantza. Amaitzeko, sua piztu eta haren gainetik salto egingo dute.

Aurretik, beltzez jantziriko emakume misterioitsu batzuk hauxe abesten dute:



SAN JUANGO ITURRIEN DAGO URA BERDE
AMURAITXO FRESKUAK HANTXEN DIRADE
LEMIZKO ESKUAK ETA GERO MUSUAK
SAN JUANGO ITURRIAREN FRESKUA.

SAN JUAN GARAGARRILLIAN DENBORA GALANTIAN
MAIZIK ETA GARIK EZ DAGONIAN ETXIAN
ORAIN ARTE BEHAR HEMENDIK AUERRERA GARI!



Nola ospatzen duzue San Joan gaua zuen auzoan?

.....

.....

.....

UZTAILAK

21/25




Madalen jaiak

Xiiiiiiiii Pun!

Uztailaren 21ean arratsaldeko 7:00etan izaten da txupinazoa. Udal Musika Bandak *Centenarioa* jotzen du eta Maialen eta Xanti, *Demonica*, *Indioa*, *Beltza*, *Xaku* eta *Lepo* buruhandiak kaleetan zehar abiatzen dira.



Ba al dakizu jaietako zein une diren hauek?



.....

.....

.....



Zer da?

ERESBIL

NIESSEN KULTURA GUNEA

XENPELAR


ZAMALBIDE

TXIRRITA/MALEO

ARRAMENDI

MUSIKASTE

MARKOLA



Zuzena dena aukeratu



Non pentsatu zuten herria berre-raikitzea erasoetatik babesteko?

☐

San Markon

☐

Basanoagan

☐

Fanderian



Nolakoa izan zen herriaren hazkundera?

☐

Bat-batekoa

☐

Pixkanaka joan zen handitzen

☐

Beti izanda horrelakoa



Hauetatik zein ez da auzo izena?

☐

Lartzabal

☐

Olibet

☐

Masti/Loidi



Noiz hasten dira Madalen jaiak?

☐

Ekainaren 23an

☐

Uztailaren 21ean

☐

Abuztuaren 15ean



Aipatuko al zenituzke herrian ospatzen diren kultura-jarduerak?

.....

.....

.....

.....

.....

.....





Herria ezagutzen

1
2
3
4
5
6

Nor ginen

Itsas bazterrean

Handituz

Gure altxorra

Orain, gu!

Etorriko direnak

www.ondarea-errenteria.net



Errenteriako Udala

